

Poesia

AMAIA ITURBIDE

Profilak (Mugetan barrena)



erein

PROFILAK
(Mugetan barrena)

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko martxoan.

Azala diseinua:

A. Beltza

Azaleko margolanaren egilea:

Amaia Iturbide Mendinueta, Txori urdinaren aztarna

Maketazioa:

Erein

© Amaia Iturbide

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-9109-988-8

L.G.: D 162-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Ulzama

Altutzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

contacto@ulzama.com

www.ulzama.com



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Amaia Iturbide

PROFILAK

(Mugetan barrena)

MANIKIAREN BAKARDADETIK

ABIAPUNTU

Zurezko manikiak

etxea leku sustraitsua ez ezik,
paseko hegaztia ere badela daki,
agian horregatik zuhaitzaren erroak onartu arren,
urratsak hotel-zorukoak dauzka
eta bizitza txori baten gisara zeharkatzen du.

Oin puntetan dabil bidaian zehar,
non gero eta biderkatuago baitaude
bizitzaren abarrak,
hauek ere bera bezala legez kanpokoak eta
maiz muturreko bakartze egoerara kondenatuak.

Erakusleihotik at bizitza garatuz doa,
erakusleiho barruan manikiak
txertogintzan eta protesigintzan dihardu,
elipsean eta eklipsean.

MANIKIAREN AZALPEN BATZUK

I

Batzuetan *body art* praktikatzeari ekiten diot,
metabolismo osoz praktikatu ere,
pasarelan zehar nabilen bitartean.
Besteetan aktore gisara koadroak errepresentatzen nabil
benetako *tableau vivant*ak sortuz.
*Body art*aren eta *tableau vivant*en bitartez
hurbilerrazagoa naiz.

Arropa birziklatuaren ahotsa dudala diote,
birjarritako irratsaio baten itzulpena naizela.

Musika-piezen moldaketak arretaz jarraitzen ditut eta
modako amarruetan galtzea gustatzen zait.

Bizitzan komodina izatearen garrantziaz jabetzen naiz
edo *ready-made*aren asmazioarenaz.

Azkenean ez dakit nor edo zer naizen
(automata, momia, exoeskeleto
robot, playmobil edo zer),
agian norbait edo zerbait errepikaezina
plataforma experimental batean.

(Eta hau guztia diot *prêt-à-porter*
flâneur esateko modu bat ere izan daitekeelako
besoaren abdukzioa erakusten dudan bakoitzean).

II

Ez nuen neure neurriko ezer aurkitu
ororen gainetik pertsona izan nahi nuelako,
bi zentzutan izan ere:

gizakia

(beheko suarekin zein

lurraren arnasarekin bat egiten duen

tamaina naturaleko zuhaitza,

bide aldapatsuan

gurutzeak makulutzat dauzkana)

eta maskara

(hainbat egoeraren haria moztutakoan

hegaldatzen hasten den kometa).

Horregatik zaurgarritasunaren izenean
haragi-kolorea hartzen saiatzen naiz
larruan barrena ere.

III

Nire gauzen inbentarioa hauxe da:
pentsamendu soilak kulunkatzeko hamaka
adimen artifiziala garatzeko ordenagailuko egitaraua
eta gelako mahai eraisgarria.
Horrela ixten dut katalogoa
horrela zabaltzen bizitza.

Egun bateko lorea naiz
dei galdua irribarre murritzarekin,
Internetetik eskatutako bigarren eskuko objektua
konektatu gabeko kablea
behin-behineko semaforo horietariko bat,
hori besterik ez,
puntuzko trazatu bat, azken finean.
Eta gezurra badirudi ere,
hau guztia su goritan markatutako
kontrazigilu modura sentitzen dut.

Hona hemen nire garaikurra:
zuntz-etendurek eta hezur-higadurek
azpimarratzen dizkidaten ibilbideak,
zeinek bizitzaren langak
(ebakiak eginda dauzkaten enborrak,
zutabe ildaskatu horiek)
besarkatzera eraman nauten.
Horrela iristen naiz
xede nagusirik gabeko
eguneroko helmugetara,

horrela berariaz bilatzen dudan
profil ez-komertziala osatuz doakit.

KONTRAIKUDIAREN ANTZERKI-OHARRA

Zure bila nabil
plotterraz trazatutako irudia bainintzan.

Hau apuntatutakoan,
sisari albainuak kentzean edonori sor dakioken
bezalako keinua egiten dut,
puntuak tira egingo balidate bezala
–hitzok esanez zuzendu zaio manikiari
bere lanpostutik eta
biografia ez baimenduaren jantzi informaletik.

PENDRIVEAN IRAKUR DAKIZKIOKEENAK

I

Badakit zer den adierazpen gaitasuna,
lapurtuta eduki ostean
guztia berreskuratu beharra
—dio ahots sintetikoaz.

Horregatik ulertzen dut
hizkuntza gutxituek jasaten duten egoera,
haiek babestutako hizkuntza-uharteak
—zehazten du,
ondoren eranstekeo
hizkuntza-eskakizuna
maila apalekoa daukala,
bedel batena, adibidez.

II

Gutziz manikia sentitu nintzen,
harresiz kanpokoa,
neure burua egunkariko eskela anonimo batean
ikusi nuenean eta gero eskela berarekin
topatu nintzenean kaletik nindoala.
Enbor batetik zintzilik zegoen
(txintxetaz iltzatuta).

Izan ere, bizitzari egindako hitz-atzean
kaballeta desarmatu bat jartzea
ez dago batere txarto,
ezta norberaren gorputza
sutarako prestatzea
(egur koloreko su maitemindurako).

Agian horrexegatik ere une batzuetan
besotzat Vattimoren bi
t (tarteka-marteka ibiltzea)
t (total-moteltasuna adierazpidetzat edukitzea)
eramaten ditut,
adarkatze-aginduari eman eta pantailan
agertzen den zuhaitz birtual batek
zainak garraiatzen dituen bezalaxe.

III

Batzuetan ilea mozten dut larru-arras utzi arte.
Neure burua inausteko modua da,
bizitzan gertatzen diren injustizien aurka
protestatzeko tankera.

Une horietan neure burua manifestazio jendetsuetan
sostengatutako pankarta horietarikotzat daukat.
Belar zapaldua berriro nola haziz doan
ospatzeko abagunea ere bada.

Besterik ezean, errealitate gorabeheratsua orrazteko
ekintza hau aukeratzen dut,
look kontua baino zerbait gehiago dena.

BEHARREZKO IRIZPIDEAK XXI. MENDERAKO

Judith Butlerren teoriei jarraituz
transgeneroa keinu performatibotzat hartu eta
gorputza egitasmo kultural gisa
aurkeztea proposatzen du manikiak,
baita norberaren nia eta ekintza
elkarren beharrean direlarik diskurtsoan eraikitzea.

Alexander McQueen erreibindikatzen dabil
(eredu jasangarriaren aldeko jantzigintza hobetsi eta
oihalen mugetan jardun zuen azti basatia,
arropa digitalaren aitzindari eta eskultorea
publizitate-aholkulari aditua),
berak iradoki baitzion, besteak beste,
barne arropa dar-dar egiten duen
organzazko pinpilinpauza arrotza izan daitekeela.

Lurrerako harguneak instalatzen ere aritzen da sarritan,
horrela pertsonak bizkarrez ezagutzeko ohitura dauka
(hor nabaritzen baitira bizitzak utzitako koskak).

Azkenik Bilboko Burdin Hesia
eraso aldietarako erreferentzia-puntutzat edukitzea
erabakitzen du
(mosaikoaren bertsioan).

ZENBAIT AITORPEN MANIKIARI

I

Distopiko ikusten zaitut
ideietan burusoil
ekintzetan, berriz, ordu baxuetan
oxigeno-maskara beharko bazenu bezala.
On Murritz deituko nizuke.

Borderline igartzen zaitut,
litografia bateko marrak diruditen bideetatik ibiltzen.
Edo eskalpeloaren bitartez bizitza disekezionatzen.
Desira-objektu gisara ere antzematen zaitut
beti beira-arasari lotuta.

Likidoturik begiratzen didazu
bizkarrezurrik gabeko zutabe banintz bezala,
ahul,
limurtzen diren egun gris horietariko baten antzera,
eta ezpalduta
dantza elbarriak eginez
kaiola itxurako instalazio baten barruan.

Anomiaren eraginez
ez zaude hedonista, epikureo baizik
ez indartsu, estoiko baizik.

Ekibokotasunez zeharkatutako
zure zerumugaren ondoan
guztia egingarriago gerta daiteke.

Eta Karl Jaspersez oroiturik
erru sentimendua esperimentatutakoan,
Existenz ahoskatzen dut
muga guztiak neureganatu nahian.

(Zure facebook-profila
ikuspegiok baldintzatuta dagoela esango nuke
—eta baita aberastuta ere—).

II

Zerbait amorfoa naizela uste dut,
oihalezko armairuan barneraino sartu eta
munduak erdi deseginda jarraitzen duela ohartzean
(eskuetatik ihes egiten digun marmelada da).
Agian horregatik kitsch nago
1988an Yukio Mishimaz gogoratu nintzenean bezala,
kitsch, bai, eta horrela bitxitasun gaixoberaz
Jeff Koonsen *Puxika-txakur laranja* besarkatzen dut,
luma-kartoizko zerbaitek harri-kartoizko beste zerbait
besarka dezakeen moduan.

Bestaldetik, urratu dudan bidea
(iltzez errematxatua)
ez dabilela oso urruti zure bidetik aitortu beharra daukat
biok markaketa zorrotzaren pean egon baikara,
biok zuri gordinez margotutako esparruak
aktibatzen jardun baitugu,
biok bizitzaren artefaktua desmuntatzeari ekin baitiogu.

Egoera ezegonkorrean zauden arren,
segurtasun-jagoletzat zaitut.
Zure aldamenean giza ezkutuarena egitea ere
ez litzaidake inportatuko.
Azkenean labilitatearen izenean eta elkartasun gisara
airezko aieru bat igortzen dizut.

III

Zarama jaisten dudan bakoitzean,
begirada zerumugarantz zuzentzen dut.
Kontainer bat margotzea eta
suzko lerro bat trazatzea,
barra energetikoak hartzea eta
kale estu batetik paseatzea
edota oinutsik itsasertza errepasatzea eta
jantzi bat albaintzea
gauza bertsuak dira niretzat.

Ez alferrik podcastak entzuteko uzten dizkidazun
aurikularrak direla medio ere ohartu naiz
mundua egitasmo sinkronizatua dela.
Horrek bultzatuta koordenada-marrak
han-hemenka sarritan kokatzen ditut.
Orduan lerro-lerro dauden lertxunak
tartekatzen zaizkit nonahi.
Linotipiatik ateratako marrarekin topatzen naizenean,
mundu hau ulertu ahal izateko eskema ikusten dut.

Bizikleta-errei banandua aukeratzen dut
bide posibilistari eusteko eta
kayakez bidaiatzen dudan bitartean
zenbait txistutatik limurtzen naiz.

Marrazaina ere banaiz
bizitzaren joko-zelaian.

Horrela nire ibilbidea eskudel amaigabea
suerta daitekeela esan dezaket.

NI ERE SOLDADURA BIGUNEN LANTEGI BATEAN

Badakit kontrako metalak menperatzeko
buztinezko eskuak edukitzea zaila dela.

Agian horregatik zu bezala ni ere
formakuntza ikastaroetan egon eta
langile eta sortzaile likidoa izatea erabaki dut,
agian horregatik *softwarea* dela medio
antolatu duzun puzzle metafisikoa estimatzen dut,
eta agian horregatik
beti ere nire agerpen erdipresentzialetik
bizitzari mediatikoki eta domotikoki
begiratzen diot.

Azken aldiotan
eremu pribatuetarako landare delikatuak
prestatzen nabil
(etzaulki ergonomikoak),
antzerki-lanetarako jantzi-aprestuak
eta baita zenbait gailu bioniko ere
(sentitzen duten begiak).

AURKIBIDEA

Manikiaren bakardadetik	5
Abiapuntu	7
Manikiaren azalpen batzuk	8
Kontrairudiaren antzerki-oharra	12
Pendrivean irakur dakizkiokeenak	13
Beharrezko irizpideak XXI. menderako	16
Zenbait aitorten manikiari	17
Ni ere soldadura bigunen lantegi batean	22
 Bizipen-laginak	23
Partitura minimalistak	25
Naufragoen botiletan aurkitutako mezuak	26
Trokela	27
Erreprodukzio-museoa	28
Irudiaren bila	30
Txori sinbolistaren atzetik eta azken txori espresionistaz ...	31
Terrakota	32
Egoera itzulezin hartatik	33
Zeruaren eta lurraren arteko mugetan (Ebazpen paraleloa) ..	35
Egun zenbatuetan bezalaxe	36
Airera bidean	37
Ilargiaren hozkekin	38
Gurutzegrametan	39
Fotogramen bitartez	40
Protesta-keinu gisara	41
Edorta Eskuartazirekin	42
Elkarriketak igogailuan	43
Dalfren liburu-maleta honetan	44
Ilusio mugarrituak	46
Bidaia	49
Poema surrealista (Ultimatum gisara)	50

Ikasketa-prozesuez	51
Neguko sandaliak	53
Kuku-erlojuarekin	54
Etxe barruko landarea	55
Artestiloaz	56
Diseinuaz hausnartzen	58
Arkitektura-profila	59
Akuarela eta papera elkarri egindako bisitan	60
Buztin koloreko euria	61
Ardo dastatzaileak unea destilatzen dihardu	62
Eguneratzen eta gaueratzen	64
Paterarantz	66
Konfinamendua	67
Bizitzarekikoa	68
Noizbehinka	69
Zenbait antzerki-ohar	70
Miguel de Unamuno: muga-marretan	71
 Behatokietan zehar	 75
Bigarren plano zinematografikoetatik	77
Proposamen primitiboez	78
Beilatokiko langilea	79
Telebistako monitorea	80
Hiri-bazterretik	81
Mendikate bateko teleferikoa (Albotik ikusita)	82
Gargolaren agerpena	83
Balkoiak (Aurretiko bista)	84
Op art-eko artista baten langela	85
Kordobako meskita	86
Cuencako Arte Abstraktuaren Museoa	87
Ahedo de Angulon (Teleobjektiboz)	88
Arabako Lautadan (Angelu handitik)	89
Bilboko itsasadarretik	90

Planteamendu mugakideekin	91
Ortzadar	93
Bi aldeen arteko kontaktuaz.	94
Sinadurak	95
Iceberg.	96
Haikua	97
Samuel Beckett	98
Snowboard	99
Epemugen artean.	100
Azken aldiko Mark Rothkoren koadroak	101
Negu hegian	102
Cristino de Verarengana.	103
Une bat taxutzen	104
Geruzagintzan	105
Hitz-atzeak	106